Ahizpa Ospitalariak
AITA MENNI

2020

URTEKO **TXOSTENA**

Ahizpa Ospitalariak - Aita Menni, 2020
www.aita-menni.org
hospital.aitamenni@hospitalarias.es

Diseinu eta maketazioa:
Erremedia Comunicación Global

01 AURKEZPENA 5
02 NOR GAREN 6
03 ZER EGITEN DUGUN 7
04 PERTSONAK 11
05 INFORMAZIO EKONOMIKOA 12
06 KALITATEA ETA BERRIKUNTZA 13
07 GIZARTEAREKIKO KONPROMISOA 15
08 COVID-19 20

Erizaina baino gehiago da: laguna da.
Gaixoa baino gehiago da: gizakia da.
Arreta medikua baino gehiago da: arreta pertsonala da.
Ongizate fisikoa baino gehiago da: ongizate osoa da.
Tratamendua ematea baino gehiago da: babesa eta maitasuna ematea da.
Osasuna baino gehiago da: justizia da.
Iragana baino gehiago da: etorkizuna da.

Aita Menni.
Ospitale bat baino gehiago da: Hospitalitatea da.

HOSPITALITATE GARAIA

Ezin dugu 2020ak ekarri duena aurkezteko gutun hau hasi utzi gaituzten pertsona guztiak gogoan izan gabe, gehienak pandemiaren biktima. Hildakoen kopuruak **mundu mailako tragedia** bihurtu du egoera, eta gure zentroetan ere gogor jo du. Ahizpa Ospitalarioak osatzen dugun guztiok hildako erabiltzaile, erlijioso, laguntzaile eta senitartekoez dugun oroitzapenak lagun diezagula egiten dugun eguneroko lanean.

Jesusen Bihotzaren Ahizpa Ospitalarioen Kongregazioaren XXI. Kapitulu Orokorrak, Praktika ezazue hospitalitatea izenburuarekin, Frantzisko Aita Santuaren Evangelii Gaudium exhortazioaren dinamismo misiolaria eta "irteeraren" paradigma praktikan jartzera gonbidatzen gaitu. Ez genuen imajinatzen pandemiak samariar emakume eta gizonen irudiak gure erreferenteak izango ziren egoera batean jarriko gintuenik.

2020. urte hau ikasteko, entzuteko eta enpatiarako, bereizteko, premian daudenei zerbitzua emateko, gizartearen beharrei erantzuteko eta entregatzeko denbora izan da, mugarik gabe, erabiltzaileen osasuna zaintzeko helburu bakarrarekin, horixe baita gure misioaren ardatza.

Samariarraren figura gure **kolaboratzaileengan** gorpuztuta ikusi dugu, **AITA MENNI** osatzen duten zentro guztietan eta bakoitzean, ekintza bakoitza eta guztietan ematen duten entrega, dedikazio, profesionaltasun eta maitasunarekin, eredu eta motibazio izan baitira eta dira pandemiak dirauen hilabete luze eta gogorretan.

Bereziki azpimarratu behar dugu erabiltzaileen osasuna eta harremanen osagai animiko eta emozionala zaintzeko duten kezka, bereziki konfinamenduak eta mugikortasunaren eta bisiten murrizketek hurbilekoekiko zuzeneko harremana nabarmen urritu dutenean. Familiaren hedapen bihurtu dira, lehendik zeudenak baino lotura sendoagoekin, komunikazioa erraztuz bestelako forma batzuekin eta familiei eguneroko bilakaeraren berri ematen saiatuz.

Erantzukizunaren zentzuak, laguntzaileen ingurune pertsonala eta soziala murriztearen kontura bada ere, sakrifizio bat ekarri du, gizarteak beti ikusten ez duena, baina kolaboratzaile guztiek Erakundearen misioarekin duten konpromisoa goratzen duena.

Batzuetan, Covidaren presio, neke eta gehiegizko informazioaren esposizioagatik, konpromiso arduratsu horrek zalantza eginarazi die kolaboratzaileei, eta erruduntasun sentimendu batek hartu ditu, kutsatzeko bektore bihurtzeko beldurragatik, eta, horrek, berez horrela behar ez lukeen arren, areagotu egin ditu estres, antsietate eta itomen mailak. Langileek zailtasun erantsi handietako baten moduan deskribatu dute egoera hori, zeina gizarteak ez beti ikusten.

Aipamen honen bidez langile sanitario eta soziosanitario guztien kalitate humano eta profesionalaren balioa agerian jarri nahi da. Haiek, haien familiak, guztiok nozitu dugu estres gehigarri hori, estresa jasateko formula egokiak bilatuz, konpromisoan, adiskidetasunean eta talde lanean aurkituz eta jarraitzeko behar den indar bihurtuz.

Pandemia honetan beste erreferente nagusia **erabiltzaileak** izan dira, pazienteak: animatu egin gaituzte, gidatu egin gaituzte eta eman dieguna baino askoz ere gehiago itzuli digute beren alaitasun, irribarre eta maitasunarekin. Senideekin egin beharreko bisiten eta irteeren murrizketek eten emozionala eragin dute, eta nekez ordezka ditzakegu. Segurtasunaren eta erabiltzaileen eta familien arteko harremanen malgutasunaren inguruan zalantzan ibili gara beti. Erabakia ez da inoiz erraza izan, eta beti hartu da kontuan bi aldeentzako kalte emozionala eta afektiboa. Eztabaida horretan, taldearen segurtasuna lehenetsi da pandemiak eragin handiena izan duen uneetan, eta neurriak malgutu egin dira ahal izan denean, eta hor aurkitu dugu familien ulermena, berriz ere babesa eta etengabeko gogoa erakutsi baitigute.

Harro gaude komunitate ospitalarioa osatzen duten pertsona guztiez, pandemia garai honetan erakutsi eta frogatu digutenaz, zein zen jarraitu beharreko bidea, gizarteari eskaintzeko eta ahal dugun neurrian laguntzeko bidea. Harro gaude, baita ere, **erakundeen** babesaren hartzaile izan garelako, horien artean egonik Eusko Jaurlaritzako Osasun Saila, Araba, Bizkai eta Gipuzkoako Foru Aldundiak, Kabia, Uliazpi eta IFAS Foru Erakundeak, Lares moduko elkarte sektorialak, hornitzaileak eta gurekin une zailak partekatu dituzten erakunde asistentzial guztiak.

Laguntzaileei eta Ahizpei, erabiltzaileei eta familiei, erakundeei eta enpresei, eskerrik asko guztioi, hospitalitate garai hau partekatzeagatik.

Sor Monserrat Esparza
Superiora

Mikel Tellaeche
Director Gerente

MUGAK GAINDITZEN DITUEN HOSPITALITATEA

Jesusen Bihotzaren Ahizpa Ospitalariak asistentziarako erakunde katoliko bat da, irabazi asmorik gabea, eta 135 urte baino gehiago daramatza gaixotasun mentala, desgaitasun intelektuala eta bestelako gaixotasun batzuk dituzten pertsonen harrera, asistentzia eta gizarteratzearen arloan, bereziki ahulenak lehenetsirik.

1881eko maiatzaren 31n sortu zen Kongregazioaren lehen zentroa, Ciempozuelos herrian, Madrildik kilometro gutxira, Jainkoaren San Joan Ordenako apaiza zen **San Benito Menni**ren eskutik, **Maria Josefa Recio** eta **Maria Angustias Gimenez**ekin batera.

Hirurek sentitu zuten beharrezkoa zela Erakunde bat sortzea gaixotasun mentala zuten emakumeek garai hartan sufritzen zuten bazterketa sanitario eta sozialari aurre egiteko, bi irizpide funtsezko bateratuta: karitatea eta zientzia.

Gaur egun, Ahizpa Ospitalarien erakundeak **83 zentro** eta dispositibo baino gehiago kudeatzen ditu Afrika, Asia, Latinoamerika eta Europan, etengabe elkartasun bide bat proiektatuz mundu osoan artatzen dituen pertsonen alde.

25 herrialdetan dago presente, **17.300 osasun eta gizarte plaza** baino gehiagorekin, eta azken urtean **2 milioi lagun** inguru izan dira **onuradun**.

Lan horiek **1.000 ahizpa eta 11.780 langile baino gehiagoren** entrega eta profesionaltasunari esker egiten dira, euren lankidetza modu boluntarioan eskaintzen duten pertsona ugarirekin batera.

GURE MISIOAK ETA BALIOEK DEFINITZEN GAITUZTE

Kongregazioaren misioak Hospitalitatearen karisma gauzatzen eta adierazten du, premia duten pertsonei arreta espezializatua eta zainketa soziosanitarioak eta psikopedagogikoak emanez, hori guztia arazo mentala edo desgaitasun intelektuala duten pertsonen prebentzioaren, errehabilitazioaren eta integrazio sozialaren bitartez.

Hospitalitateaz dugun ikuspegiak, premia duen pertsonaren harrera moduan ulertuta, ez du bereizketarik egiten arraza, sexu, ideologia, erlijio edo klase soziala dela eta.

HOSPITALITATEA 8 BALIO HAUETAN GAUZATZEN DA

- Baztertutako pertsonen aldeko sentsibilitatea
- Gaixoei zerbitzua ematea
- Harrera askatzailea
- Osasun integrala
- Kalitate profesionala
- Gizateria arretan
- Etika jarduera guztietan
- Kontzientzia historikoa

Hospitalitatearen balioak funtsezko elementua dira gure Erakundean, eta bakar batean laburbiltzen dira: HOSPITALITATEA. Balio horiek, prestakuntza eta asistentzi prozesuetan integratuta, baztertu ezinezko erreferentzia dira erakundeko arduradunen erabakiak gidatzeko eta euren portaerak inspiratzeko.

OSPITALARIAK MUNDUAN

370 ZENTRO ETA DISPOSITIBO ASISTENTZIAL

17.300 PLAZA SANITARIO ETA SOZIAL

25 HERRIALDE AFRIKA, ASIA, EUROPA ETA LATINOAMERIKAN

2 MILIOI ARTATUTAKO PERTSONA

ESPAINIAKO PROBINTZIA KANONIKOA

19 zentro asistentzial
115 eguneko zentro
2 ospitale orokor
2 tutoretza fundazio
1 ikerketan espezializatutako fundazioa
7.413 laguntzaile

270.819 artatutako pertsona
8.062 asistentzia emateko ohe eta plaza
2.618 Psikiatriako ohe
2.344 Psikogeriatriako ohe
2.486 Desgaitasun Intelektualeko plaza
318 Ospitale Orokorreko ohe
213 Kalte Zerebraleko ohe eta plaza
83 Zainketa Aringarrietako ohe

6 LERRO ASISTENTZIAL

- Osasun Mentala
- Adineko Pertsonak
- Kalte Zerebrala
- Desgaitasun Intelektuala
- Zainketa Aringarriak
- Ospitale Orokorra

03 ZER EGITEN DUGUN

AITA MENNI

AITA MENNI OSPITALEA + AITA MENNI GIZARTE ZERBITZUAK

20 **zentro eta dispositibo** asistentzial, propioak edo esleipen publikoarekin kudeatuta.

21 **zentro eta dispositibo**, Aita Mennik aholkularitza espezializatuko zerbitzuak egiteko edo kanpo kontsultak kudeatzeko.

4 LERRO ASISTENTZIAL

- Osasun Mentala
- Adineko Pertsonak
- Kalte Zerebrala
- Desgaitasun Intelektuala

	2018	2019	2020
Ospitaleko egonaldiak	**299.929**	**313.565**	**304.552**
Oheak	887	853	906
Osasun Mentala	186	181	185
Adineko Pertsonak	611	566	188
Desgaitasun Intelektuala	64	70	73
Kalte Zerebrala	26	36	36
Eguneko zentroetako asistentziak	**100.944**	**104.241**	**94.885**
Plazak	493	506	501
Osasun Mentala	108	108	108
Adineko Pertsonak	332	344	339
Kalte Zerebrala	53	54	36
Kanpo kontsultak	**45.546**	**42.282**	**28.869**

Aita Menni Ospitalea

13 **zentro eta dispositibo** asistentzial, propioak edo esleipen publikoarekin kudeatuta.

17 **zentro eta dispositibo**, Aita Mennik aholkularitza espezializatuko zerbitzuak egiteko edo kanpo kontsultak kudeatzeko.

4 LERRO ASISTENTZIAL

- Osasun Mentala
- Adineko Pertsonak
- Kalte Zerebrala
- Desgaitasun Intelektuala

Ospitaleko egonaldiak	**155.346**	**150.730**	**155.918**
Oheak	424	429	482
Osasun Mentala	186	181	185
Adineko Pertsonak	148	142	188
Desgaitasun Intelektuala	64	70	73
Kalte Zerebrala	26	36	36
Eguneko zentroetako asistentziak	**54.666**	**54.147**	**52.915**
Plazak	234	242	217
Osasun Mentala	108	108	108
Adineko Pertsonak	73	80	80
Kalte Zerebrala	53	54	54
Kanpo kontsultak	**45.546**	**42.282**	**28.869**

Aita Menni Gizarte Zerbitzuak

6 **zentro eta dispositibo** asistentzial, propioak edo esleipen publikoarekin kudeatuta.

LERRO ASISTENTZIAL **1**

- Adineko Pertsonak

Ospitaleko egonaldiak	**144.583**	**162.835**	**148.634**
Oheak - Adineko Pertsonak	463	424	424
Eguneko zentroetako asistentziak	**46.278**	**50.094**	**41.970**
Adineko Pertsonak	259	264	259

Etxetek

2 **bulego** publikoaren arretarako eta

Etxetek **biltegi** **1**, Gipuzkoako Foru Aldundiko Laguntza Teknikoen Informazio eta Baloraziorako Zentroa, esleipen publikoarekin kudeatuta.

ZERBITZU **1**

Etxetek Programa
Gipuzkoako Foru Aldundia

Kudeatutako eskaerak	**4.825**	**4.250**	**3.930**
Lagundutako etxeak	**4.967**	**5.129**	**5.283**

Egoitza Unitate Soziosanitarioa Eibarko Ospitalea

arreta zentro **1** esleipen publikoarekin kudeatuta.

COVIDA-19

Covid duten Gipuzkoako mendeko pertsonak zaintzea

Ospitaleko egonaldiak	**5.264**

20 ARRETA ZENTRO

GIPUZKOA

ARRASATE
- **AITA MENNI OSPITALEA** / Osasun Mentala, Adineko Pertsonak, Kalte Zerebrala, Desgaitasun Intelektuala
- **URIBE EGUNEKO ZENTROA** / Adineko Pertsonak
- **URIBE EGUNEKO OSPITALEA** / Osasun Mentala
- **ERGÜIN EGUNEKO ZENTROA** / Osasun Mentala
- **AZOKA EGUNEKO ZENTROA** / Kalte Zerebrala

EIBAR
- **EGOITZA UNITATE SOZIOSANITARIOA** / Covid

BEASAIN
- **EZKIAGA EGUNEKO ZENTROA** / Osasun Mentala

BERGARA
- **BERGARAKO EGUNEKO ZENTROA** / Adinekoak

DONOSTIA
- **MALDATXO EGUNEKO ZENTROA** / Osasun Mentala
- **ZUATZU EGUNEKO ZENTROA** / Kalte Zerebrala

ESKORIATZA
- **ESKORIATZA EGUNEKO ZENTROA** / Adineko Pertsonak

IRUN
- **ANTZARAN EGUNEKO ZENTROA** / Osasun Mentala

OÑATI
- **SAN MARTÍN EGOITZA** / Adineko Pertsonak
- **SAN MARTÍN EGUNEKO ZENTROA** / Adinekoak

SORALUZE
- **EGUNEKO ZENTROA** / Adineko Pertsonak

BIZKAIA

BILBO
- **TXURDINAGABARRI EGOITZA** / Adineko Pertsonak
- **TXURDINAGABARRI EGUNEKO ZENTROA** / Adineko Pertsonak
- **EGAÑA ZENTROA** / Kalte Zerebrala

DURANGO
- **JM BARANDIARAN EGOITZA** / Adinekoa Pertsonak
- **JM BARANDIARAN EGUNEKO ZENTROA** / Adineko Pertsonak

ETXETEK

DONOSTIA
- **BULEGOAK, ERAKUSKETA ETA BILTEGIA**

EIBAR
- **ERAKUSKETA ETA BILTEGIA**

AHOLKULARITZA ETA KANPO KONTSULTAK 21 LEKUETAN

GIPUZKOA

ARRASATE
- **ITURBIDE EGOITZA** / Adineko Pertsonak

HONDARRIBIA
- **ULIAZPI. ZUBIETA ZENTROA** / D. Intelektuala

DONOSTIA
- **IZA EGOITZA** / Osasun Mentala
- **GAINBEGIRATUTAKO PISUA** / Osasun Mentala
- **ULIAZPI. DONOSTIA ZENTROA** / D. Intelektuala
- **ULIAZPI. ATEGORRIETA ZENTROA** / D. Intelektuala

OIARTZUN
- **ERTZAINTZA** / Osasun Mentala

VILLABONA
- **ULIAZPI. FRAISORO ZENTROA** / Desg. Intelektuala

ZUMARRAGA
- **IBAIONDO HEZKUNTZA Z.** / Osasun Mentala

BIZKAIA

BILBO
- **IFAS. BEKOETXE ZENTROA** / Kalte Zerebrala
- **IFAS. LOIU - UDALOSTE ZENTROA** / D. Intelektuala

ERANDIO
- **ERTZAINTZA** / Osasun Mentala

DERIO
- **ERREKALDE EGUNEKO Z.** / Osasun Mentala

GERNIKA
- **LURGORRI EGUNEKO Z.** / Kalte Zerebrala

GORDEXOLA
- **ZUBIETE EGUNEKO Z.** / Osasun Mentala

ORDUÑA
- **GABRIEL Mª IBARRA EGUNEKO Z.** / D. Intelektuala

ZALLA
- **LUSA ZENTROA.** / Desgaitasun Intelektuala

ARABA

ARKAUTE
- **ERTZAINTZA** / Osasun Mentala

GASTEIZ
- **VITHAS SAN JOSE OSPITALEA** / Osasun Mentala

ANDOIU
- **ANDOIU-GORBEIA HEZK. ZENTROA** / O. Mentala

APODAKA
- **APODAKA HEZK. ZENTROA** / Osasun Mentala

GURE TALDEA DA GURE INDARRA

Kalitatezko arreta bermatzeko, beharrezkoa da profesional talde bat izatea, prestakuntza tekniko eta humanoa duena

AITA MENNI

PROFESIONALAK
1.060

AHIZPAK
13

BILAKAERA



AITA MENNI OSPITALEA

KONTRATUA	2019	2020
Finkoa	384	398
Behin-behinekoa	131	165
Bitarteko finkoa	57	48
GUZTIRA	572	611



GIZONAK 17%

EMAKUMEAK 83%

> 50 urte 34%

< 25 urte 21%

41 - 50 urte 28%

25 - 40 urte 17%

PRESTAKUNTZA

EKINTZAK	LANGILEAK
21	302
ORDUAK	**INBERTSIOA**
638	7.266 €

AITA MENNI GIZARTE ZERBITZUAK

KONTRATUA	2019	2020
Finkoa	289	293
Behin-behinekoa	121	115
Bitarteko finkoa	45	41
GUZTIRA	455	449



GIZONAK 9%

EMAKUMEAK 91%

> 50 urte 36%

< 25 urte 13%

41 - 50 urte 28%

25 - 40 urte 23%

PRESTAKUNTZA

EKINTZAK	LANGILEAK
8	25
ORDUAK	**INBERTSIOA**
109	1.350 €

IRABAZI ASMORIK GABEKO ERAKUNDE BAT GARA

Gure kudeaketa ekonomikoa artatzen ditugun pertsonen zerbitzura dago.

Baliabideak efizientziaz kudeatu nahi ditugu, gure iraunkortasuna bermatzeko, hau da, laguntzaileekin eta oro har gizartearekin dugun konpromisoa bermatzeko. Pertsona guztiengana iristeko lan egiten dugu, haien gizarte- edo ekonomia-egoera edozein dela ere.

AITA MENNI

NEGOZIO ZIFRAREN BILAKAERA



JARDUEREN BANAKETA



SARREREN BANAKETA



	% 2019	% 2020
EUSKO JAURLARITZA - OSASUN S.	29,4	30,1
GIPUZKOAKO ALDUNDIA	26,9	27,8
BIZKAIKO ALDUNDIA	22,3	25,3
PARTIKULARRAK PRIBATUAK	10,8	10,9
PARTIKULARRAK KOORDAINKETA	7,6	3,4
MUTUALITATE ETA ASEGURU-ETXEAK	1,8	1,6
BESTEAK	0,6	0,5
ARABAKO ALDUNDIA	0,6	0,4

KOSTU ARRUNTEN BANAKETA



INBERTSIOEN BILAKAERA



INSTALAZIOEN HOBEKUNTZA

OBREN PLAN ZUZENTZAILEA (2018-2027)

2018an **Obren Plan Zuzentzailea** jarri zen martxan (2018 - 2027), Gesalibarreko **Aita Menni Ospitalea guztiz eraberritzeko**. Planak, instalazioak eta ekipamenduak berritzeaz gain, **azalera erabilgarria 3.300 m2 handitzea** ere ekarri du.



ERABILTZAILEAREN ARRETA ZERBITZUA (EAZ)

Kexak eta erreklamazioak





INGURUMEN KUDEAKETA

Aita Mennik bat egiten du bere inguruko erakundeek duten konpromiso sozialarekin, eta horregatik parte hartzen du ingurumenaren defentsan eta klima aldaketaren aurkako kudeaketan, bere ingurumen kudeaketa hiru ardatz garrantzitsutan antolatuz:

HONDAKINEN KUDEAKETA

Material hauek kudeatzen dira:

- **Hiri hondakinen antzeko hondakin sanitarioak** (materia organikoa, plastikozko ontzi hutsak, kartoia/papera, kristala/beira, pilak, metalezkoak, egurra eta arropa).
- **Hondakin sanitarioak, bioarriskutsuak edo hondakin sanitario bereziak** (sekrezioak, jariakin biologikoak, jariakin horiekin kontaktuan egon diren materialak...).
- **Zitotoxikoak** (iraungitako medikamentuak, fluoreszenteak, termometroak, orratzak, tonerrak, lubrifikatzaileak...).

EKINTZAK

- Aita Menni Ospitalean, inausketako eta lorezaintzako hondakinen **konpostajea**, pazienteek egina.

EMISIOEN KONTROLA

EKINTZAK

- **Autoa partekatzeko** ekimena. 75 lagun.
- **Tokiko lehengaien hornitzaileak**, elikagaietarako (0km). Konpromisoa Ausolanekin.
- Garbiketarako produktuak, **Ekolabel ziurtagiriarekin**, eta ontzi birziklagarriak.
- Ezartzeko fasean: **bizikleta eta auto elektrikoetarako kargagailuak**.

KONTSUMOAK OPTIMIZATZEA

EKINTZAK

- **Airearen kalitatearen** azterketa Biotaldearekin. Aireberritzeko hodiak garbitzea eta ekipoaren errendimendua hobetzea.
- **Ontzi garbigailu** efizienteagoak jartzea.
- **LED argiak** aldatzea.
- **Egituren itxiturak** hobetzea.
- **Leihoak** ordeztea.

KONTSUMOAK	2018	2019	2020	Bar. %
Ura	89.079 m^3	94.982 m^3	92.000 m^3	**-3,2%**
Gasa	6.834.234 kW/h	7.474.386 kW/h	7.110.849 kW/h	**-4,9%**
Elektrizitatea	3.384.899 kW/h	3.486.035 kW/h	3.569. 677 kW/h	**+4,1%**

BESTE EKINTZA BATZUK

- **Auditoria** energetikoak.
- **Ingurumenaren Egunerako** ekitaldiak eta ekintzak antolatzea (ekainak 5).
- Baratze tailerrean **nekazaritza ekologikoa** sartzea (hitzarmena Ekoudalatxekin).
- Pazienteentzako **birziklapen tailerra**, kartoi eta plastikozko materialak, kapsulak, telak eta papera erabiliz, produktuak egiteko eta saltzeko. Jasotako dirua proiektu solidarioetarako erabiltzen da.

NAZIOARTEKO LANKIDETZA

Gaixotasun mentala duten emakumeak errehabilitatzeko, Aita Mennik **We Are Like You** programa garatzen du Monrovian (Liberia), Saint Benedict Menni Health Centrerekin elkarlanean; Afrikako herrialdean dugun zentro adiskidea da. Zentroaren inguruneko haurrak babestea ere kudeatzen du.

ARTATUTAKO EMAKUMEAK

108

BABESEAN HARTUTAKO HAURRAK

23 We Are Like You proiektuaren bidez

17 Benito Menni Fundazioaren bidez













07 GIZARTEAREKIKO KONPROMISOA

DIRU JATORRIA	2015	2016	2017	2018	2019	2020	TOTAL
Jarduera solidarioak (€)	11.419	3.732	8.243	6.500	16.663	6.584	53.141
Babesgarriak (€)			225	4.569	5.396	4.836	15.026
Enpresak (€)	17.352	8.999	500	16.000	30.000	8.000	80.851
Ahizpa Ospitalariak (€)	3.586	404	17.000	15.701	14.507	21.000	72.198
Dirulaguntzak (€)		18.000	167.927	12.000		1.833	199.760
Partikularrak (€)	1.860	1.565	3.177	6.649	4.990	2.090	20.331
GUZTIRA €	**34.217**	**32.699**	**197.072**	**61.419**	**71.557**	**44.343**	**441.307**
Osasunaren Mundu Erakundea ($)		99.478					99.478
Catholic Relief Services ($)	45.000						45.000
Transferentzia bidezko diru-sarrerak ($)		41.494	109.810		53.714	74.214	279.232
GUZTIRA $	**45.000**	**140.972**	**109.810**		**53.714**	**74.214**	**423.710**

DIRU XEDEA (€)	2015	2016	2017	2018	2019	2020	TOTAL
Liberiarako transferentziak		37.722	100.000		49.297	65.100	252.119
Eguzki-panelak		28.000	14.323	1.903		665	44.891
Lankide atzerritarren soldatak			20.663	97.108			117.771
Bidaiak			3.304	5.704			9.009
Besteak	20	2.663	248	36	-136	-96	2.736
GUZTIRA €	**20**	**68.385**	**138.539**	**104.751**	**49.162**	**65.669**	**426.525**

DIRU XEDEA (US$)	2015	2016	2017	2018	2019	2020	TOTAL
Ebolarako triajea eta instalazioak	45.000						45.000
Obrak osasun mentaleko pabiloian		64.018	89.540				153.558
Sorgailua eta eguzki-panelak		59.811					59.811
Boluntarioen etxea			37.722				37.722
Tokiko langileen soldatak			6.965	27.861	43.936	46.443	125.205
Gastu operatiboak				33.494	32.803	38.993	105.290
Babesgarriak			247	5.302	6.326	5.685	17.561
GUZTIRA US$	**45.000**	**123.829**	**134.474**	**66.657**	**83.065**	**91.121**	**544.147**

EMAILEAK ETA LAGUNTZAILEAK

PROIEKTUA BABESTEN DUTEN ERAKUNDEAK

- Liberiako Osasun Ministerioa
- Osasunaren Mundu Erakundea

PROIEKTUA FINANTZATZEN LAGUNTZEN DUTEN ENTITATEAK

- Catholic Relief Services
- Garaipenerako Lankidetzaren Euskal Agentzia
- Gipuzkoako Foru Aldundia
- Anesvad
- Gipuzkoako Sendagilleen Elkargo Ofiziala
- Bizkaiko Medikuen Elkargoa

PROIEKTUAN PARTE HARTZEN DUTEN BESTE ERAKUNDE BATZUK

- The Carter Center
- Laboral Kutxa
- Ausolan
- Ategi
- Samsic
- Lavanindu
- Atlético San Sebastián
- Santa Maria Katedrala Fundazioa
- Chillida Leku Museoa
- Aquarium Donostia
- Indusal
- Easo Abesbatza
- Donostiako Orfeoia
- Bilboko Koral Elkartea
- MCC Telecom
- Montte Altzariak
- Dato Económico
- Ormak
- Araba Bus
- Inarkia
- Docor Komunikazioa
- Erremedia Komunikazioa

ELKARTASUNA

Aita Mennik badu lantalde bat elkartasun proiektuetan parte hartzen duena, gure zentroetan sentsibilizazio jarduerak antolatzen dituena eta elkarlanean aritzen dena hainbat GKEren kanpainetan.

ELIKAGAI BANKUAK

- **Arrasateko, Irungo eta Donostiako Errehabilitazio Psikosozialeko Zentroetako** erabiltzaileek parte hartu dute, boluntario gisa, Gipuzkoako Elikagai Bankuek supermerkatuetan **elikagaiak biltzeko egiten dituzten kanpainetan**.

CARITAS

- Elizbarrutiko Caritasen aldeko **urteko bilketan** parte hartzea.

GURUTZE GORRIA

ERREFUXIATUEI BURUZ GURUTZE GORRIAK DUEN PROGRAMA

- Lau pertsonak hartu dute parte **boluntariotza programan**, gure pazienteei konpainia egiteko helburuarekin eta, aldi berean, errefuxiatuentzat gizarteratzeko bide bat irekitzeko.

KIROL EGOKITUA ETA INKLUSIBOA

AITA MENNI KIROL ELKARTEA (AMKE)

132 **Hartutako kalte zerebrala, gaixotasun mentala, desgaitasun intelektuala edo autismoaren espektroko nahasmenduak dituzten kirolariak.**

51 kirolari entrenatzeko talde erregularretan (14 emakume eta 32 gizon):

- 8 **Boccia**
- 7 **Ping-ponga**
- 8 **Ziklismoa**
- 11 **Futbola**
- 17 **Igeriketa**

70 pertsonak egin dute jarduera fisikoa 2020an pandemia hasi arte egindako jarduera-saioetako batean.

Joxe Miel Barandiaraneko langileak eta egoiliarrak, Euskaraldia ospatzen.

EUSKARA

2014az geroztik, Aita Mennik Euskara Batzorde bat dauka, pazienteek, familiek eta langileek euskara erabiltzeko duten eskubidearen alde egiten duena. 2020an, Batzordearen lan-arloak hauek izan dira:

AITA MENNIN EUSKARAREN APLIKAZIOA ANTOLATZEA

- **Euskararen 2020-2023 Plan Estrategikoa** zehaztea.
- Euskara Planerako **laguntza ofizialak** eskatu eta kudeatzea

EUSKARAREN EZAGUTZA LANTZEA

- **Euskara klaseak.** 6 langile klaseetara joan dira Martxora arte.

EUSKARAREN ERABILERA BULTZATZEA

- Zentroetan eta unitateetan euskararen erabilera **ebaluatzea**.
- Dokumentuak **itzultzea**.

EUSKARAREN ALDEKO GIROA SUSTATZEA

- **Euskaraldiaren** ospatzea.
- Euskarazko "pilulak" bidaltzea.

BERDINTASUNA

Aita Menni emakumeen eta gizonen arteko berdintasunarekin konprometituta dago lan-arloan, eta, horrez gain, desorekak desagertarazteko eta emakumeen aurkako indarkeria desagerrarazteko beharrezkoa den gizarte-aldaketara bideratutako kontzientziazio-neurrien alde egiten du.

08

COVID-19

2020. urteak duela mende askotatik ezagutzen ez zen mundu mailako epidemia bat ekarri zuen, gure bizitzak eta gure jarduera atzera bueltarik gabe aldatu zuena. Aita Mennik, menpekotasun maila desberdina dituzten pertsonak artatzen dituen erakundea den aldetik, artatzen dituen pertsonak zaintzeko erronkari aurre egin behar izan dio, eta, aldi berean, pertsona horiek artatzen dituztenen osasuna zaindu behar izan du. Oso urte zaila izan da, eta ospitale komunitate osoak sufritu dugu —ahizpak, pazienteak, familiak eta langileak—, baina, era berean, ikasi dugu ezagutzen ez genuen zerbaiti taldean aurre egiten, animoz eta dedikazioz, zailtasunak zailtasun.

Ondoren datozen orrietan Covidak Euskal Autonomia erkidegoan ditugun zentroetan izan duen eraginari buruzko informazio espezifikoa dago, pandemiari aurre egiteko martxan jarri ditugun ekintzak eta neurriak, eta erakundeekin izan dugun lankidetza, beste zentro soziosanitario batzuei birusaren aurkako borrokan laguntzeko.

KANPO MUGARRIAK

Laburdurak

OME Osasun Mundu Elkartea
GFA Gipuzkoako Foru Aldundia
BFA Bizkaiko Foru Aldundia

abendua

12/31 Txinak Wuhango agerraldia jakinarazi zuen.

urtarrila

01/31 OMEk nazioarteko larrialdia ezarri zuen Wuhanen izandako koronabirus agerraldiagatik.

otsaila

02/26 Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailak Covid Protokoloa argitaratu zuen.

02/26 Osasun Ministerioa: Covid bidezko infekzioaren aurrean jarduteko prozedura.

martxoa

03/05 Osasun Ministerioa: Covid19rako gomendioak egoitzetarako eta zentro soziosanitarioetarako.

03/10 GFAk eguneko zentroak ixteko agindu du. Bisitak eta irteerak bertan behera uzten dira.

03/11 OMEk pandemia gisa kalifikatu du Covid-19. NBEak ez hornitzea.

03/13 Eusko Jaurlaritzak osasun alerta ezarri zuen. **Konfinamenduaren hasiera.**

03/14 Alarma egoeraren deklarazioa lurralde osoan.

03/18 Eusko Jaurlaritzako Osasun Saila: kohorteak maneiatzeko prebentzio neurriak.

03/21 Eusko Jaurlaritza: 65/2020 Agindua, egoitzei eta zentro soziosanitarioei buruzko neurriei buruzkoa.

03/23 Bizkaiko Foru Aldundiaren Agindua, garbiketa neurri osagarriei buruzkoa.

03/23 BFAren jarraibideak egoitzetako positiboen kudeaketari eta komunikazioari buruz.

03/24 Osasun Ministerioa: Covid19aren aurreko prebentzio eta kontrol gida, adinekoen egoitzetan.

03/31 Eusko Jaurlaritzako Osasun Saila: Egoitza zentroak babesteko materialez hornitzeko komunikazio zirkuitu bat martxan jartzea.

04/12 Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailak Covid-19aren zaintza epidemiologikorako protokoloa argitaratu zuen.

04/27 Bisitei eta familiekiko komunikazioari buruz Bizkaiko Foru Aldundiak emandako argibideak.

apirila

maiatza

Deseskaladaren hasiera.

05/06 Osakidetzak jarraibideak ezarri zituen bakartzeko erabakiak hartzeko.

05/13 Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailak Covid-19aren zaintza epidemiologikorako protokoloa eguneratu zuen.

05/19 Gipuzkoako Foru Aldundiak gizarte zerbitzuetan errealitate berria egokitzeko plana argitaratu zuen.

05/25 Eusko Jaurlaritza: Egoitzetan jarduteko protokoloa.

05/26 BFAk eguneko arretako gizarte zerbitzuetako zentroak irekitzeko dekretua argitaratu zuen.

05/27 BFAk eguneko arretako gizarte zerbitzuetako zentroak irekitzeko dekretua argitaratu zuen.

ekaina

06/01 GFAk norbera babesteko ekipamenduak (NBE) hornitzen hasi zen.

06/19 BFAren Agindua, egoitzetako prebentzio, euste eta koordinazio neurriei buruzkoa.

06/24 Eusko Jaurlaritzak zentro soziosanitarioetan Covid19a zaintzeko eta kontrolatzeko protokoloa argitaratu zuen.

uztaila

07/04 GFA: Bi senitarteko edo hurbilekoren bisitak.

07/21 Eusko Jaurlaritzak Covid-19 jarduera protokoloa eguneratu zuen.

07/25 BFAk adineko pertsonen eguneko zentro guztiak ixteko agindu zuen Foru Agindua argitaratu zuen.

07/25 GFAk desgaitasuna duten erabiltzaileen irteerak baimendu zituen.

07/18 Bizkaiko eta Gipuzkoako adinekoen Eguneko Zentroetan jarduera etetea abuztuaren 2ra arte.

abuztua

08/07 GFA: Sektorizatu gabeko langileen NBEei buruzko araudia.

08/26 GFA: FFP2 maskarak ematea adinekoentzako egoitza zentroetako langileek erabiltzeko.

08/02 Adinekoen Eguneko Zentroak irekitzea.

08/19 Ospitalean FFP2 maskarak orokorrean erabiltzea.

GFAren zentroen sareko Kontingentzia Planak berrikustea (adinekoen 68 egoitza, desgaitasuna duten pertsonen 25 egoitza, adingabeen 8 egoitza, buruko nahasmendu larria dutenen 8 egoitza, adingabeentzako 23 pisu, osasun mentaleko 12 pisu, desgaitasuneko 38 etxebizitza).

iraila

09/02 Eusko Jaurlaritzako Osasun Saila: oporretarako itzuliera zirkuituak eta langile berriak ezarri ziren.

09/17 Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailaren prestakuntza: Gipuzkoako egoitza zentroetan infekzioa prebenitzeko eta kontrolatzeko plana.

09/18 Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailak, zaintza epidemiologikorako protokoloa eguneratzean, Covida aerosolen bidez transmititzen dela sartu zuen.

09/23 Eusko Jaurlaritzak zentro soziosanitarioetan Covid19a zaintzeko eta kontrolatzeko protokoloa argitaratu zu[illegible]

urria

10/25 Alarma egoeraren deklarazioa estatu osoan.

11/03 Alarma egoera maiatzaren 9ra arte luzatu zen.

11/13 Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailak zentro soziosanitarioetan Covid19a zaintzeko eta kontrolatzeko protokoloa eguneratu zuen.

azaroa

abendua

urtarrila



BARNE MUGARRIAK

Hildakoak Euskadin (5:1 eskala)
Hildakoak Espainian (1:1 eskala)

Iturria: Osasun, Kontsumo eta Gizarte Ongizateko Ministerioa

COVID EKINTZA PLANA

- Birusa prebenitzeko eta kontrolatzeko neurriak
- Bakartze eremuak eta garbi-zikin zirkuituak sortu eta definitzea
- Norbera babesteko ekipamenduen erabilera
- COVID-19 zaintza eta kontrol protokoloa
- Langileen sektorizazioa
- Aita Menni kontingentzia planak:
  - Aita Menni Ospitalea
  - Txurdinagabarri Egoitza
  - Barandiaran Egoitza
  - San Martin Egoitza
  - Eguneko Zentroak (10 Kontingentzia Plan eta Prebentzio Plan)

Positiboak Espainian (1:1 eskala)
Positiboak Euskadin (5:1 eskala)

Iturria: Zaintza Epidemiologikoko Sare Nazionala

LEHEN OLATUA

martxoa

55 hildako

913 hildako

03/02 Alerta Sanitarioaren Batzordearen eraketa.

03/05 **COVID-19aren 1. EKINTZA PLANA**

03/09 Bisitak eta irteerak etetea.

03/09 Jarduera anbulatorioa ixtea.

03/09 Etxetek zerbitzuaren baldintzak doitzea.

.

apirila

04/01
Barandiaran Egoitza
4 positibo **Hildako 1**

04/01 Langile asistentzialen prestakuntza eta trebakuntza.

04/04 Gipuzkoako egoitzetako bisitak hasi ziren Kontingentzia Planak ezartzeko aholkularitza emateko.

04/10 Aita Menniren lankidetza Gipuzkoako egoitzetako gidalerroak lantzeko.

04/27 Gela laukoitzetan paretak egitea.

maiatza

05/05etik 05/15era
Aita Menni Ospitalea
4 positibo

05/04 Aita Menniren prestakuntza Gipuzkoako egoitzentzat Gipuzkoako zentro soziosanitarioetan Infekzioa Prebenitu eta Kontrolatzeari buruz.

05/12 Errehabilitazio Psikosozialeko Zentroak (EPSZ) berriz irekitzeko planteamendua.

05/19 Bilera Eguneko Zentroetan konfinamendua arintzeari buruz.

05/20 Bilera Ospitalean eta Egoitzetan konfinamendua arintzeari buruz.

ekaina

06/08 Eguneko Zentroak irekitzea, CENER berriz irekitzea.

06/08 Bisiten hasiera (senide bat).

06/08 Eibar irekitzea, Covid deribazio zentro gisa.

06/15 Zuatzuko Kalte Zerebraleko Zentroa berriz irekitzea.

06/22 Ospitaleko kanpo kontsultei eta zerbitzu anbulatorioei berrekitea.

iraila

09/13tik 10/05era
Aita Menni Ospitalea
3 positibo

09/21tik 10/04ra
Arrasateko Adinekoen Eguneko Zentroa (ixtea)
Positibo 1

09/26tik 10/07ra
Barandiaran Adinekoen Eguneko Zentroa (ixtea)
Positibo 1

urria

[illegible]
Barandiaran Egoitza
19 positibo **3 hildako**

10/27tik 11/12ra
Aita Menni Ospitalea
Positibo 1

Irteera eta bisitetarako irekitzea.

10/14 Aita Menniren prestakuntza Gipuzkoa egoitzentzat Gipuzkoako zentro soziosanitarioetan Infekzioa Prebenitu eta Kontrolatzeari buruz.

azaroa

11/05etik 12/21era
Aita Menni Ospitalea
37 positibo **2 hildako**

11/24tik 12/21era
Aita Menni Ospitalea
12 positibo

11/04tik 11/16ra
Beasaingo EPSZ (ixtea)
Positibo 1

11/22tik 12/10era
Arrasateko Adinekoen Eguneko Zentroa (ixtea)
12 positibo

abendua

12/03
Txurdinagabarri Egoitza
44 positibo **24 hildako**

12/04tik 12/31
Aita Menni Ospitalea
4 positibo

12/08
Aita Menni Ospitalea
Positibo 1

12/17
San Martin Egoitza
4 positibo **Hildako 1**

12/04tik 12/15era
Arrasateko Adinekoen Eguneko Zentroa (ixtea)

12/04tik 12/15era
Soraluzeko Adinekoen Eguneko Zentroa (ixtea)

urtarrila

25 hildako

511 hildako

01/04
San Martin Egoitzako agerraldia bideratzea.

01/25
Txurdinagabarri Egoitzako agerraldia bideratzea.

Aita Menniren aholkularitza teknikoa Gipuzkoako egoitzetan Covida kudeatzeko, GFAko Ikuskaritza Sailarekin batera.

Barandiaran Egoitzan, norbera babesteko ekipamendu osoarekin.

OSASUN MENTALA ETA COVID-19A

Manuel Martin Carrasco
EAEko eta Nafarroako Ahizpa Ospitalarioen zentroetako zuzendari medikoa.

2019ko abenduaren 31n, Txinako Wuhan hirian SARS-CoV-2[1] koronabirusak eragindako gaixotasun infekzioso berri baten agerpenaren berri eman zen: COVID-19a[2]. Gaixotasuna mundu osora zabaldu zen, eta 2020ko martxoaren 11n Osasunaren Mundu Erakundeak pandemia deklaratu zuen. Orain arte, COVID-19ak 121 milioi pertsonari eragin die mundu osoan, 2,5 milioi pertsona baino gehiago hil dira hainbat olatutan, eta agerraldi gehiagoren mehatxuak bere horretan dirau. Zifra ofizialen arabera, 72.500 lagun baino gehiago hil dira gure herrialdean.

Horrez gain, segurtasun eta konfinamendu neurriek aurrekaririk gabeko krisi ekonomiko eta soziala eragin dute, tamainari dagokionez zein ezartzeko azkartasunari dagokienez. Hori guztiari ziurgabetasun eta beldurrezko giro soziala gehitzen zaio, osasun agintarien erantzun zalantzakor eta are kontraesankorrek areagotzen dutena, batez ere hasierako uneetan. Gainera, gaur egungo gizarte global eta mediatikoak pandemia bati aurre egin behar dion lehen aldia da, eta horrek zerikusia du, adibidez, hedapenaren abiadurarekin eta mota guztietako albisteekiko esposizio etengabearekin, baztertu ezin diren gezurrezko albisteen[3] portzentaje bat barne.

Ez da harritzekoa, beraz, COVID-19ak eta horri lotutako inguruabarrek eragin nabarmena izan izana osasun mentalean. Aurtengo urtarrilaren 31tik otsailaren 2ra Txinan egindako azterketa batek agerian jarri zuen depresioaren eta antsietatearen prebalentzia bikoiztu egin zela epidemiaren aurretik aurkitutako zifrekin alderatuta, eta hazkunde hori komunikabideekiko esposizio handiago batekin lotzen zela (Gao et al, 2020)[4]. Beste herrialde batzuetatik datozen datuak —AEB[5], Italia[6], Frantzia[7]— an- tzekoak dira. Gure herrialdean, Gonzalez-Sanguino et al (2020)[8] autoreek inkesta bat egin zieten 3.460 subjekturi Internet bidez, eta aurkitu zuten laginaren %18,7k depresio sintomak zituztela, %21,6k antsietatekoak eta %15,8k trauma osteko estresaren nahasmendua.

Kontrastea dago pandemiak eragindako kalte somatikoan eta psikologikoan; arlo fisikoan, kalterik

1. *Severe acute respiratory syndrome coronavirus 2* ingelesaren akronimoa.
2. *Coronavirus disease 2019* ingelesaren akronimoa.
3. How fake news about coronavirus became a second pandemic (2020) Nature, May 11. doi: 10.1038/d41586-020-01409-2.
4. Gao, J., Zheng, P., Jia, Y., Chen, H., Mao, Y., Chen, S., et al. (2020) Mental health problems and social media exposure during COVID-19 outbreak. PLoS ONE 15(4): e0231924. https://doi.org/ 10.1371/journal.pone.0231924
5. Bojdani, E., Rajagopalan, A., Chen, A., Gearin, P., Olcott, W., Shankar, V., et al (2020) COVID-19 Pandemic: Impact on psychiatric care in the United States. Psychiatry Res 6; 289:113069. https://doi.org/ 10.1016/j.psychres.2020.113069.
6. Percudani, M., Corradin, M., Moreno, M., Indelicato, A., Vita, A. Mental Health Services in Lombardy during COVID-19 outbreak. Psychiatry Res 288:112980. https://doi.org/ 10.1016/j.psychres.2020.112980.
7. Mengin, A., Allé, M.C., Rolling, J., Ligier, F., Schroder, C., Lalanne, L., et al (2020) Psychopathological consequences of confinement. Encephale. 22. pii: S0013-7006(20)30075-0. do https://doi.org/ 10.1016/j.encep.2020.04.007.
8. González-Sanguino, C., Ausín, B., Castellanos, M., Saiz, J., López-Gómez, A., Ugidos, C. et al (2020) Mental Health Consequences during the Initial Stage of the 2020 Coronavirus Pandemic (COVID-19) in Spain. Brain Behav Immun. 13 https://doi.org/10.1016/j.bbi.2020.05.040.



Monitore bat Txurdinagabarriko egoiliar bati laguntzen, familiarekin bideodei bidez komunikatzeko.

handiena duten pertsonak adinekoak diren bitartean, psikologikoki eragin handiena dutenak heldu gazteak dira, eragin sozial eta ekonomikoa larriagoa baita haiengan.

Zifra horiek bat datoz antzeko beste egoera batzuetan izandako nahasmendu psikiatrikoen gorakadarekin, esaterako, ebola[9] birusak eta SARS-CoV-1[10] birusak eragindako epidemietan. Halaber, ezin dugu ahaztu konfinamendu eta bakartze sozialeko neurriek eragindako krisi ekonomikoak eta langabeziak ere berez areagotzen dituztela nahasmendu psikiatrikoak, berriki igarotako 2008ko krisiaren[11] esperientziagatik dakigunez.

Une hauetan, itxaropenak txertoetan jarrita daude. Hainbat txerto garatu dira denbora errekorrean, eta orain arte lortutako esperientziak erakusten du eraginkorrak direla. Orain arte 4 txerto daude baimenduta Europako Erkidegoan —Pfizer, Moderna, Astra Zeneca eta Janssen—, baina litekeena da aurki kopurua handitzea. Herritar guztiei txertoa jartzea lan ikaragarria dela erakusten ari da, batez ere logistika eta antolaketa zailtasunengatik. Dena dela ere, populazioaren immunitate maila, kontuan hartuta txertoa hartu duten pertsonak eta dagoeneko kutsatu direnak, gero eta altuagoa da, eta, garrantzitsuena dena, talde kalteberak arrisku gunetik gero eta urrunago daude, eta horrek osasun sistemaren gaineko presioa arintzea ekarriko du, baita olatu berriak gertatzen badira ere.

Hala ere, COVID-19aren aurkako borroka ez da amaitu. Mutazioak dira funtsezko arriskua, eta dagoeneko badira hainbat andui berri: britainiarra, brasildarra, hegoafrikarra eta abar. Badirudi oraingoz kutsakorragoak direla, baina gaixotasunaren larritasuna handitu gabe. Adituek nabarmendu dutenez, mutazioak ohiko fenomenoa dira birusetan, eta modu eraginkorrean egin dakioke aurre txertoen aldaketa berriekin, nahiz eta horrek berriro aldian behin txertatzera behartzen gaituen, beste birusi batzuekin gertatzen den bezala. Gainera, arazoarekiko sentiberatasun falta dago biztanleriaren zati batean, baita klase politikoaren artean ere, eta askotariko gizarte egoerak sortzen ditu, baita egoera bitxiak ere.

Laburbilduz, ikusten da garapen teknologikoari esker lortu dela urtebetean gaixotasunari aurre egiteko baliabide eraginkorrak izatea. Hala ere, antolamendu sozial eta politikoa, une honetan, urrun dago hainbeste behar den erantzun zuhur eta koordinatua ematetik.

9. Cénat, J.M., Felix, N., Blais-Rochette, C., Rousseau, C., Bukaka, J., Derivois, D., et al (2020) Prevalence of mental health problems in populations affected by the Ebola virus disease: A systematic review and meta-analysis. Psychiatry Res. 29;289:113033. https://doi.org/ 10.1016/j.psychres.2020.113033.
10. Maunder, R.G. (2009). Was SARS a mental health catastrophe? Gen Hosp Psychiatry, 31(4):316-317.
11. Martin-Carrasco, M., Evans-Lacko, S., Dom, G., Christodoulou, N.G., Samochowiec, J., González-Fraile, E., et al (2016) EPA guidance on mental health and economic crises in Europe. Eur Arch Psychiatry Clin Neurosci, 266(2): 89-124.

OSASUN ALERTAKO BATZORDEA

Osasun Alertako Batzordea martxoaren 2an sortu zen Aita Mennin, Covidak eragindako osasun krisiari erantzuteko beharrezkoak ziren jarduerak kudeatu eta koordinatzeko helburuarekin. Harrezkero, ohiko bilerak astero egiten dira, gutxi gorabehera, eta, horrez gain, beste bilera batzuk ere egiten dira, eskariaren arabera deitzen direnak.

KIDEAK

Osasun Alertako Batzordea diziplina anitzeko talde batek osatzen du, eta zentroko profesional teknikoek eta zuzendariek parte hartzen dute:

- Zuzendari gerentea
- Zuzendari medikoa
- Erizaintzako zuzendaria
- Pertsonen Arloko zuzendaria
- Zerbitzu Orokorretako zuzendaria
- Farmaziako arduraduna
- Gizarte Laneko arduraduna
- Kalitate eta Pazientearen Segurtasuneko arduraduna
- Laneko Arriskuen Prebentzioko arduraduna
- Barne medikua
- Egoitzetako koordinatzaileak

EGINKIZUNAK

1. Birusa prebenitzeko eta kontrolatzeko **neurriak ezartzea**.
2. Aita Menni sareko arlo eta zentroetako profesionalek egindako **galderak eta gaiak** jaso, bideratu eta ebaztea (175 kontsulta baino gehiagori erantzun zaie).
3. Une bakoitzean indarrean dauden **arauak eta protokoloak aztertzea**.
4. **Protokoloak eta kontingentzia planak prestatu eta hedatzea** jarduteko neurri eta esparruei buruz: kasuak sailkatzea, kohorteak sortzea, probak egitea, langileak sektorizatzea, hondakinak kudeatzea, garbiketa eta desinfekzioa, bisitak kudeatzea, bakartutako pazienteak kontrolatu eta zaintzea, senideekin komunikatzea, etab.
5. **Konfinamendua arintzeko une bakoitzean hartu beharreko neurriak aztertu eta erabakitzea** zentroaren eta ingurunearen egoera epidemiologikoaren arabera, eta bisitei/irteerei, mugikortasunari eta abarri buruzko dekretuen eta aginduen arabera, betiere bakartzeak pazienteengan duen eragina arintzeko neurriak bilatuz.
6. Erakundeekiko **komunikazioa koordinatzea** (epidemiologia, Aldundiak, etab.).
7. Covid dela-eta administrazioak gure zentroetan egindako **ikuskapenen ondoriozko ekintzen jarraipena** (25 ikuskapen baino gehiago).
8. **Baliabideak esleitzeko balorazioa, jarraipena eta kontrola**: NBEak, errefortzuko langileak, pazienteen komunikazio eta entretenimendurako bitartekoak (tabletak, telebista, etab.).
9. Langileei zuzendutako **barneko informazio oharrak** (13 baino gehiago) nahiz familiei zuzendutako kanpoko oharrak (12 baino gehiago), egoera bakoitzean hartutako neurriez eta pandemiak arlo eta zentro guztietan duen bilakaeraz informatzeko.
10. **Prestakuntza ekintzak definitzea eta koordinatzea.**
11. **Adierazleak ezartzea** eta egindako kudeaketaren emaitzen **ebaluazioa** eta jarraipena egitea.

BILERAK

32 bilera Alerta Batzordean.

14 bilera arlo/zentro desberdinekin bakartzea aktibatzeko, baita pazienteen egoeraren jarraipena egiteko ere.

3 bilera espezifiko mediku taldearekin, arreta protokoloak adosteko.

12 bilera espezifiko Gizarte Langileekin, pazienteen/familien bisiten, irteeren eta komunikazioaren baldintzak ezartzeko.

GARATUTAKO DOKUMENTAZIO NAGUSIA

- Kontingentzia planak.
- Prebentzio eta kontingentzia planak.
- Konfinamendua arintzeko planak.
- Protokoloak.
- Langileentzako eta familientzako informazio oharrak.
- Online prestakuntzako materiala.

LANDUTAKO GAIAK

- Langileen sektorizazioa.
- Langile asistentzialen eta ez-asistentzialen prestakuntza.
- Norbera Babesteko Ekipamenduak.
- Garbi-zikin zirkuituak.
- Maskara motak eta erabilera.
- Bakartzeko espazioen zonifikazioa.
- Egiturazko hobekuntzak eta bakartzeko baldintzak.
- Bisitak.
- Zentroetako sarrerak/irteerak.
- Hondakinen kudeaketa.
- Garbitzeko eta desinfektatzeko jarraibideak.
- Faktore epidemiologikoak.
- Laginak jasotzea.
- Aktibatzeko eta desaktibatzeko zirkuitua definitzea.
- Bakartzeen eragina.
- Txertaketa.

BAKARTZEEN ADIERAZLEAK

Adineko Pertsonak	Ospitalea	Durango	Oñati	Txurdinaga	Desgaitasun Intelektuala	Osasun Mentala	Kalte Zerebrala	GUZTIRA
Artatutako pertsonen kopurua	**430**	**153**	**80**	**328**	**49**	**138**	**127**	**1.305**
Bakartutako lagun kopurua	**290**	**128**	**184**	**495**	**80**	**71**	**40**	**1.288**
Bakartzeko arrazoia								
Susmoak sintomengatik	19	72	75	0	11	0	2	179
Susmoa positiboekin kontaktuan egoteagatik	223	47	104	495	62	61	37	1.029
Lizentziaren edo irteeraren ondoren itzultzea	41	0	5	0	7	7	0	60
Sarrera	3	9	0	0	0	3	1	16
Probaren emaitza								
Positiboa	47	19	4	80	5	12	0	167
Ezin da detektatu	240	109	180	415	75	69	40	1.128
Immunea. Ez da probarik egiten.	4	0	0	0	0	0	0	4
Bideratzeen kopurua	**5**	**19**	**4**	**59**	**0**	**0**	**0**	**87**
Covidagatik hildakoen kopurua								
Zentroan	2	0	0	2	0	0	0	4
Zentrotik kanpo	0	4	1	24	0	0	0	29
Hildakoak guztira	2	4	1	26	0	0	0	33
Positiboen ehunekoa	**11%**	**12%**	**5%**	**24%**	**10%**	**9%**	**0%**	**13%**
Hildako positiboen ehunekoa	**4%**	**21%**	**25%**	**33%**	**0%**	**0%**	**0%**	**20%**

GIZA BALIABIDEAK

Pandemiak eragin nabarmena izan du enpresaren kapital garrantzitsuenaren, gure langileen, kudeaketan, eta agerian jarri du Pertsonen arloaren kudeaketaren balioa, sortzen ziren gorabeherak ahalik eta ondoen estaltzeko.

Koronabirusaren inpaktua ez da soilik neurtzen aldi baterako ezintasunagatik bajan egondako egun kopuruaren edo pertsonen kopuruaren bidez, baizik eta baita ere kolaboratzaileari arreta emateko egindako lan garrantzitsuaren bidez, egoera ezezagun baten aurrean, kasu askotan jarraitu beharreko prozedurari buruzko zalantzak egon baitira: "Noiz naiz kontaktu estua?", "Nork ematen dit baja?" edo "Nola egin dezaket PCR bat?", Prebentzio Zerbitzuarekin batera erantzun beharreko galdera ugarietako batzuk izan dira.

BAJA EGOERAREN BAT IZANDAKO LANGILEAK	2019	2020
	egunak	egunak
Gaixotasun arrunta	**377**	**408**
Lan istripua	**50**	**57**
Amatasuna / Haurdunaldiko arriskua / Aitatasuna	**24**	**27**
Covida	**0**	**416**
GUZTIRA	451	908

COVIDAREN ONDORIOZ ERREFORTZUAK BEHARRA	Orduak	Plantilla baliokidean
Bisiten kontrola	**8.232**	**4,2** pertsona 8,5 hilabetez
Bakartzea gertatuz gero, Unitateetan karguak banatzea	**5.880**	**3,0** pertsona durante 8,5 hilabetez
Garbitasuna, desinfekzioa eta garbitegia mantentzea	**7.448**	**6,5** pertsona durante 8,5 hilabetez
Errefortzu puntualak Unitateetako agerraldietan	**4.032**	**12,8** pertsona durante 8,5 hilabetez

ABSENTISMO EGUNAK	2019	2020
Gaixotasun arrunta	**20.563**	**25.360**
Lan istripu	**1.539**	**2.087**
Amatasuna / Haurdunaldiko arriskua / Aitatasuna	**3.676**	**2.265**
Covida	**-**	**8.671**
GUZTIRA	25.778	38.383
Kendura		+12.605
Eragina eurotan		315.125 €

Absentismoaren hazkundea 2019arekiko **% +48,90**
Covidaren inpaktua 2020ko totalarekiko (%) **% 22,59**

GASTU BEREZIAK





		ALEAK	ZENBATEKOA
NBEak	Bata, mantalak, mahukatxoak, txanoak, oin estalkiak eta betaurrekoak	388.440	**123.747,32 €**
NBEak	Eskularruak	3.576.400	**181.866,88 €**
NBEak	Maskarak	343.132	**179.518,37 €**
Covida	Zorroak	29.900	**14.255,82 €**
Covida	Gel hidralkoholikoa, desinfektatzailea	2.805 litro	**18.751,23 €**
Hondakinak	Hondakinen kudeaketa		**127.400,95 €**
Tests	Antigenoen testak	1.200	**7.683,50 €**
GUZTIRA			653.224,07 €

MASKAREN PREZIOAREN BILAKAERA



EGOITZETARAKO AHOLKULARITZA ETA PRESTAKUNTZA

Gipuzkoako Foru Aldundiaren eskutik, Aita Mennik aholkularitza eta prestakuntza lanak egin zituen 2020an lurralde horretako adinekoen egoitzetako zuzendaritza taldeentzat eta langileentzat, titulartasun publikokoak zein pribatukoak izan.

Bideokonferentzia bidezko bilera Gipuzkoako adinekoen egoitzetako arduradunekin.

2020ko apirilean, Aldundiak laguntza eskatu zion AITA MENNIri, Eibarko San Andres Egoitzari sektorizatzen laguntzeko, koronabirus agerraldi betean baitzegoen. Bisita apirilaren 4an egin zen, eta lankidetza puntuala izango zela zirudiena apirilaren 29ra arte luzatu zen, Gipuzkoako 63 egoitzetara bisitak eginez. Bisitak Aldundiko Ikuskaritza Sailarekin eta, batzuetan, Eusko Jaurlaritzako Osasun Saileko Epidemiologia Zerbitzuarekin batera egin ziren.

Bisiten xedea zen egoitza bakoitzean zegoen errealitatera hurbiltzea eta hortik aurrera kontingentzia planak elkarrekin berrikustea, sektorizazioko eta zirkuituetako oinarrizko kontzeptuak argitzen saiatzeko eta planen ezarpen maila ezagutzeko.

Gainera, bisitek beste zentro batzuetan ikusitako praktika egokiak eta esperientziak eta antzemandako akatsak helarazteko, eta elkarrengandik ikasi ahal izateko balio zuten.

Esperientzia zorrotza eta atsegina izan zen aldi berean. Oso zorrotza, hain denbora gutxian bisita asko egin zirelako eta zenbait zentrotan bizi izan ziren egoerengatik, zeinak batzuetan tragikoak izan baiziren, eta egoitzetako langileengan eragin handikoak. Ikasi genuen egoitza bakoitzeko talde kudeatzaileek nolako zailtasunei aurre egin behar zieten ikusten eta baloratzen, entzuten, enpatizatzen —izan ere, lanbide bereko kideak gara—, praktika onak balioan jartzen, elkarrekin hausnartzen eta, batez ere, kritikatik ihes egiten.

Egoitzen errealitatea heterogeneoa da: zentroen titulartasuna, enpresa kudeatzaileak, zentroen tamaina, etab. Pandemiaren inpaktuak ere ez zuen bereizten batzuen eta besteen artean, eta lehen olatuan eraginik izan ez bazuen, bigarrenean egin zuen.

Bisiten prozesuari amaiera emateko, baterako prestakuntza saioak egin ziren, Ikuskaritzako Foru Departamentuak antolatuta, 63 egoitzetara zuzenduta.

Gipuzkoako Foru Aldundiak beste prestakuntza ziklo bat antolatu zuen irailean, zentroetan Covid-19aren egoera desberdinen prebentzioari, kontrolari eta kudeaketari buruzko ezagutza sakondu eta sendotzeko.

Prestakuntza saioa Gipuzkoako adinekoen egoitzetako profesionalekin.

Eusko Jaurlaritzako Osasun Saileko Carmen Ramirez de la Piscina doktoreak eman zuen ikastaroa, eta Diputazioko, DYAko, Matia Fundazioko eta Aita Menniko profesionalek parte hartu zuten; diziplina askoko taldeak osatu zituzten, eta aldizka joan ziren zentroetara eta gizarte baliabideetara, ikuskaritza eta aholkularitza teknikoko lanak egitera, baita PCR probak egitera ere.

Ondoren, urriaren 14an, Aita Menni arduratu zen Covid-19 egoeren prebentzioari, kontrolari eta kudeaketari buruz jasotako prestakuntza adinekoen egoitza guztietara helarazi eta egokitzeaz, zehazki, zentro bakoitzeko Infekzioen Prebentzio eta Kontroleko arduradunei.

Egoitzetako bisitek abuztutik abendura eta 2021eko lehen hiruhilekora arte jarraitu zuten. Bildutako esperientziaren eta egoitzetako bakoitzak izandako ikasketaren ondorioz, gero eta gutxiago behar izan dira laguntza eta aholkularitza bisitak. Halaber, erabiltzaile eta langile guztien txertaketak eta askok gaixotasuna pasatu izanak egoitzak adinekoentzako gune seguru bihurtzen lagundu du.

COVID-19AREN INPAKTUA GIPUZKOAKO EGOITZETAN

MARTXOTIK MAIATZARA

8
ERAGIN LARRIA
9
NEURRIZKO ERAGINA
46
GARBIAK

ABUZTUTIK URIRA

4
ERAGIN LARRIA
7
NEURRIZKO ERAGINA
54
GARBIAK

HANDIA >120 plaza	ERTAINA 60 plazatik 120ra	TXIKIA <60 plaza
13	34	18

PANDEMIAK OSASUN ARLOKO PROFESIONALENGAN DUEN ERAGIN PSIKOLOGIKOA

Covid-19ak eragindako pandemiaren adierazpenak, 2020ko martxoan, eta haren atzetik etorri ziren konfinamendu neurriek egoera dramatikoa ekarri zuten maiz, eta horrek eragina izan zuen oro har biztanle guztien eta bereziki osasun arloko profesionalen osasun mentalean.

Epidemiek osasun arloko langileen osasun mentalean duten eragina agerian geratu zen aurreko gertakarietan –adibidez, SARS-CoV-1 (2003), H1N1 (2009), MERS-CoV (2012) edo ebola (2014) agerraldietan–, eta antsietate, depresio, trauma osteko estres eta absentismo maila moderatu eta altuak agertu ziren, batez ere gazteenengan eta zuzeneko arretako langileengan[1].

Gaur egungo pandemiari dagokionez, ondorio psikologiko argiak ere aurkitu dira, baina pandemia globala denez, erantzuna ezberdina izan daiteke planetako guneen arabera. Ildo horretan, duela gutxi egindako berrikuspen sistematiko bati esker, gai horri buruzko 12 azterlan identifikatu ahal izan ziren, mendebaldeko hemisferioa[2] oinarri hartuta; tartean, Espainiatik etorritako bi azterlan[3] [4]. Azterlanen berrikuspenak estresaren, antsietatearen, depresioaren, loaren alterazioaren eta burnoutaren maila aldakorrak baina areagotuak islatu zituen Europako eta AEBetako hainbat herrialdetako osasun arloko profesionalen artean. Eta sintoma ohikoagoak eta gogorragoak agertzen dira lehen lerroko langileen –Larrialdi Zerbitzuak, Zainketa Intentsiboetako Unitateak (ZIU) eta Pneumologia Unitatea–, emakumeen eta erizaintzako lanbide kategorien eta horiekin zerikusia dutenen artean.

Eragin horiek sortzeko orduan, askotariko faktoreak daude tartean. Adibidez, informazio, aurreikuspen eta jarduteko protokolo egonkorrik ez izateak motibazioa galtzea eta ziurgabetasuna ekar dezakeela ikusi da. Beste egile batzuek, berriz, lan baldintzekin lotzen dute eragin psikologiko handiagoa izatearena –esate baterako, babes ekipamenduen erabilera, lan eremuaren berrantolaketa, baliabide materialen eskasiaren eta lan kargaren kudeaketa, aparteko txandak eta ordutegi luzeagoak–, bai eta gizarte eta familia alderdiekin –urruntze soziala, maite diren pertsonak kutsatzearen beldurra– eta pazienteekin lotutako faktoreekin ere, hala nola heriotza tasa altuaren ondoriozko dolua, sufrimenduarekin eta heriotzarekin harremanetan egotea[5], eta gatazka etikoak, errealak zein aurreratuak.

Bestalde, osasun mentalaren arloko profesionalak ez dira pandemiaren eraginetik kanpo egon. Italian egindako azterlan batean, osasun arloko beste kolektibo batzuetan egindako aurkikuntzen antzekoak edo handiagoak ziren ondorioak islatu ziren. Covid-19ak eragindako kutsatze arriskuak eta horren ondorioz osasun agintariek 2020ko martxoan Italian ezarritako neurri murriztaileek eragin sakona izan zuten osasun mentaleko sareen lan jardunbideetan. Jarduerak murriztu egin ziren, irekitzeko ordutegiei eta kontaktuen eta esku hartzeen kopuruari dagokienez. Ospitaleratze unitateak Covid-19an positibo eman zuten eta nahasmendu mental akutuak zituzten pazienteentzako eremuekin antolatu ziren, interkontsulta eta etxeko arreta ugaritu egin ziren kasu larrietarako, bai eta urruneko esku hartze psikosozialen ezarpena ere. Nahasmendu mentalak dituzten pertsonentzako egoitza unitateek ere beste egoitza batzuen antzeko inpaktua jasan zuten[6].

Alde horretatik, gogoratu behar da zaharren egoitzak eta egoitza arretarako beste ingurune batzuk toki egokiak direla, tamalez, pandemiak garatzeko. Egoiliarretako asko adinekoak dira, sarritan gaixorik daude edo ahulak dira –adibidez, immunodeprimituta daude–, leku itxietan bizi dira, logela partekatzen dute eta harreman estua dute beste erabiltzaile batzuekin otorduetan eta talde jardueretan. Gainera, zaintzen dituzten langileek mugikortasun sozial handia dute maiz; adibidez, komunitatean bizi dira, asko gazteak dira eta haur txikiak dituzte, eta ez daude unitate bati bakarrik esleituta, antolaketa arrazoiak direla tarteko. Gainera, beste pertsona askok parte hartu ohi dute zentroetako egunerokotasunean: senideak, boluntarioak, praktiketako ikasleak, etab.

1. Tran, BX. et al. (2020) Studies of Novel Coronavirus Disease 19 (COVID-19) pandemic: a global analysis of literature. Int J Environ Res Public Health., 17, 4095.
2. Danet Danet, A. (2021). Impacto psicológico de la COVID-19 en profesionales sanitarios de primera línea en el ámbito occidental. Una revisión sistemática. Med Clín, S0025-7753(20)30825-3.
3. Dosil Santamaría, M., et al. (2020). Impacto psicológico de la COVID-19 en una muestra de profesionales sanitarios españoles. Rev Psiquiatr Salud Ment (Barc), S1888-9891(20)30060-4.
4. Romero, C. S., et al. (2020). COVID-19 psychological impact in 3109 healthcare workers in Spain: The PSIMCOV group. Psychol Med, 1–7.
5. Ez bakarrik pazienteena. Datuen eskuragarritasuna mugatua da, baina Amnistia Internacionalen txosten batek, 2020ko irailean argitaratuak, ordura arte mundu osoan COVID-19ak osasun arloko 7.000 langile hil zituela baieztatzen zuen.

Langile bat Eibarko Ospitaleko solairu soziosanitarioan, Aita Mennik kudeatuta.

PROFESIONALEN OSASUNA ZAINTZEN

Jarraian, pandemian zehar osasun arloko profesionalentzat funtsezkoak izan diren zenbait alderdi jaso ditugu. Osasun erakundeek nahitaez egiaztatu behar dute elementu hauek praktikan jartzen ari direla:

NORBERAREN BEHARRAK ZAINTZEA

Osasun arloko langileek uste izan dute beti egon behar dutela gainerakoei laguntzeko, eta beraien beharrak bigarren mailakoak direla, pentsatu ere egin gabe ez jateak edo atseden ez hartzeak nekea eragiten duela. Oinarrizko beharrak –jatea, edatea, lo egitea, ariketa egitea, erlaxatzea, etab.– behar bezala betetzen direla ziurtatu behar da. Ez egiteak osasun mentala eta fisikoa arriskuan jartzen ditu, eta besteak artatzeko gaitasuna ere arriskuan jar dezake.

6. Rapisarda, F., et al. (2020) The Early Impact of the Covid-19 Emergency on Mental Health Workers: A Survey in Lombardy, Italy. Int J Environ Res Public Health; 17(22):8615.

LANKIDEEKIN KOMUNIKAZIOA IZATEA

Argi geratu da talde lana pandemiaren aurkako funtsezko tresna dela. Funtsezkoa da lankideekin hitz egitea, bai eta laguntza ematea zein jasotzea ere. Bakartzeak beldurra eta antsietatea areagotzen ditu. Hala ere, desberdintasun pertsonalak aitortu eta errespetatu behar dira: pertsona batzuek beharrezkoa dute gehiago hitz egin eta komunikatzea, eta beste batzuek ez hainbeste.

Garrantzitsua da komunikazioak izaera eraikitzailea izatea, eta akatsak edo hutsuneak identifikatzea, zuzendu ahal izateko. Denok elkar osatzen dugu: laudorioak motibatzaile boteretsuak izan daitezke, eta estresa murritz dezakete. Frustrazioak, arrakastak eta konponbideak... guztiak partekatu behar dira. Arazoak konpontzeak lorpen sentipena ematen du, baita gorabehera txikietan ere. Komeni da bileretan parte hartzea, egoeraren, planen eta ekitaldien berri izateko.

EGUNERATUTA EGOTEA

Ezagutzak egoerei hobeto aurre egitea ahalbidetzen du, eta kontrol eta segurtasun bizipena ematen du. Ezagutza iturri fidagarriak aukeratu behar dira; desinformazioak eta komunikabideei gehiegi begira egoteak ondoeza ekarri dute, argi eta garbi. Ezagutza garrantzitsua da itxaropena ez galtzeko eta behar bezala jokatzeko. Adibidez, kutsatzen diren pertsona askok eta askok sintoma arinak dituztela gogorarazteko edo txertoen garrantzia, eraginkortasuna eta segurtasuna indartzeko, etab.

NORBERAREN EGOERA EMOZIONALA ZAINTZEA

Gaitasun profesionala eta sendotasuna ez dira bateraezinak nahasmena, egonezina, kontrolik ezaren sentsazioa, beldurra, errua, ezintasuna, tristura, suminkortasuna edo labaintasun emozionala sentitzearekin. Hain zuzen ere, emozioek egiten gaituzte gizaki. Emozioak segurtasuna eta konfiantza transmititzen dizkigun norbaitekin partekatzea laguntgarria da emozio horiek jasangarriago egiteko eta erregulatu ahal izateko.

Emozio desatseginak sentitzea gure buruak arriskuaren aurrean duen erreakzio normala da, defentsa erreakzioa. Hala ere, oso sakonak edo luzeak badira, egoera patologiko batera eraman dezakete. Norbera zaindu egin behar da, edozein depresio edo antsietate sintoma antzemateko eta, beharrezkoa bada, laguntza eskatzeko: tristura luzea, lo egiteko zailtasuna, oroitzapen intrusiboak, negarra edo etsipena. Arnasketa teknikak, erabateko arreta (mindfulness), ariketa fisikoa... baliagarriak izan daitezke desaktibazio emozional, fisiologiko edo kognitiborako. Beste batzuetan, beharbada tratamendu arautuagoa behar da, psikologikoa edo psikiatrikoa. Estres zantzuak hautemateak, laguntza eskatzeak eta horiek zaintzeko gelditzen ikasteak egonkortasuna lortzen laguntzen du, denboran zehar mantentzen den tentsio egoera baten aurrean.

ONDORIOAK

Covid-19aren pandemia inflexio puntu bat izan da osasun arloko profesional askorentzat, eta une horretatik aurrera gauzak desberdinak izango dira, baita "normaltasuna" berreskuratzen dugunean ere. Asko sufritu dugu, baina ikasi ere asko ikasi dugu.

Osasun krisiak estresagarriak dira definizioz, eta, askotan, ziurgabetasuna, aurreikusteko ezintasuna eta lanean intentsitate handiagoa izatea ekartzen dute. Inguruabar horiek malgutasuna, erresistentzia, ekuanimitatea eta profesionaltasuna eskatzen diete osasun arloko langileei. Profesionalek erronka horiei arrakastaz aurre egiteko eta osasun publikoko larrialdi batean pazienteak eta gizartea artatzeko, antolaketako laguntza behar dute. Krisialdi batean, erakundeek beren lan indarra planifikatzeko eta babesteko moduak eragina izango du erakundeak pazienteari arreta emateko eta langileengan eragin pertsonala arintzeko duen gaitasunean.

Sortutako sufrimendua gorabehera, krisi egoerek epe luzera hazteko edo, aldiz, estresak eragindako lesioak eta gaixotasunak izateko potentziala dute, eta hori erresilientzia pertsonalaren menpe dago, baina baita erakunde baten azpiegitura, kultura eta erantzunen menpe ere. Profesionalen beharrizan fisiko, emozional eta psikosozialei laguntzeko plan bat izatea, krisi baten aurretik, bitartean eta ondoren, funtsezkoa da talde osasungarriak eta egon daitezkeen erronkei aurre egiteko prestatuak mantentzeko.

08 COVID-19

PROFESIONALEN KONTAKIZUNA

Lankide talde bat kontatu digute nola igaro dituzten ezohiko 10 hilabete hauek: euren sentipenak, sentimenduak, emozioak...
Irakurri haien istorioa: https://www.aitamenni-berriak.org/kontakizuna edo QR kodea eskaneatu.

Etxekoek ezkutatu egin dituzte beldurrak, baina batzuetan begiradek ere transmititzen dituzte beldurrak

Nagore Urzelai, Aita Menni Ospitalea

Frustrazioa sentitu nuen. Han egon nahi bainuen nire 'amonatxoak' zaintzen

Charo Murillo, Aita Menni Ospitalea

Ezin genien merezi zuten arreta eman, NBEak soinean genituenez ez ziren gai gu ezagutzeko, erabateko ezintasun sentsazioa zen

Ainhoa Gandarias, Aita Menni Ospitalea

Ahizpen, familia askoren eta egoiliarren esker ona, maitasuna eta babesa lagungarri izan zaizkit energiari eta motibazioari eusteko

Nora Ibarra, Barandiaran Egoitza

Pandemia honek ez gaitu egiten kudeatzaile kaskarragoak; pairatzea tokatzen zaigun guztiok haren eraginpeko izatea baino ez du lortzen

Mertxe Sagarna, Txurdinagabarri Egoitza

Harro nago osatzen dugun taldeaz, eta erabiltzaileek asko erraztu ziguten lana beren portaera onarekin, bizi zuten egoera halakoa izanda ere

Tere Izquierdo, Aita Menni Ospitalea

Eibarko Ospitaleko instalazio sozio sanitarioak, non Aita Mennik Covid-19ak eragindako Gipuzkoako menpeko pertsonak artatzen dituen.

EIBARKO OSPITALEKO COVID UNITATEAREN KUDEAKETA

Hasieran Donostiako Gurutze Gorriaren ospitalean aritu eta gero, Gipuzkoako Foru Aldundiak, 2020ko ekainaren 8an, erreferentziazko zentro bat ireki zuen, Eibarko Ospitaleko hirugarren solairuan, adinekoen eta desgaitasuna duten pertsonen egoitzetatik bideratutako Covid kasuak artatzeko, eta Aita Menniri esleitu zion horren kudeaketa.

Une horretatik aurrera, 2021eko urtarrilera arte, zentroak, 399 lagun artatu ditu; horietatik 304k (%76,19) senda agiria jaso zuten, 13 (%3,26) zentroan hil ziren, 44 (%11,03) ospitale orokorretara eraman zituzten eta 27k (%6,77) zentroan jarraitzen dute edo beste ospitale batzuetara eraman dituzte.

Ekainaren 10ean lehen pertsona sartu zenetik, Eibarko zentroan ez ziren bakarrik adinekoen eta desgaitasuna duten pertsonen egoitzetatik bideratutako Covid kasuak artatu, izan ere, ekainean, uztailean eta abuztuan, beste 28 pertsona ere artatu zituzten, egoitzaren batean sartzeko berrogeialdia igarotzeko. Artatutako pertsonak adinekoen egoitzetatik, adimen urritasuna duten pertsonen Uliazpi Fundazioko eta Atzegi elkarteko zentroetatik eta baita etxe partikularretatik ere zetozten.

Zentroan hildako 13 pertsonez gain, beste 24 pertsona hil ziren geroago, bai ospitale orokorrean, bai ospitaleko alta jaso ondoren eraman zituzten egoitzetan edo etxeetan. Ospitale orokorrera eramandako 42 pertsonetatik, aipatutako 24 heriotzez gain, 17k senda agiria jaso zuten eta batek berriz ere Eibarren ospitaleratu behar izan zuen.

Altei dagokienez, egoitzetara edo etxera bideratutako 268 alta negatiboez gain, zortzi paziente Ordiziako Egoitzara bideratu ziren, oraindik positiboak izan arren, haien osasun egoera ona zelako. Horri esker, Eibarko Covid solairuko leku horiek erabili ahal izan ziren kalte handiagoak zituzten beste pertsona batzuentzat. Halaber, arrazoi beragatik beste hiru paziente Aita Menni Ahizpa Ospitalarioen berezko dispositibo soziosanitarioetara eraman zituzten.

Eibarko zentroa martxan jarri zenetik, ekainean, urrian erregistratu zen sarrera gehien, hilabete horretan 108 pertsona eraman baitzituzten instalazioetara. Covid zuten pazienteen egonaldiaren batez besteko denbora 16,15 egunekoa izan zen.

Eibarko Ospitaleko solairu soziosanitarioko gelak monitorizatzeko sistema.

SARRERAK



ALTAK

	Eka	Uzt	Abu	Ira	Urr	Aza	Abe	GUZTIRA
Alta	2	10	13	48	56	69	70	**268**
Heriotza			1	4	3	3	2	**13**
Ospitalera bideratzea		1	3	7	14	13	4	**42**
Alta ospitalearen ondoren			1	2	7	6	1	**17**
Eibarren berriro sartzea						1		**1**
Aita Menni zentrora eramatea						3		**3**
Ordiziako egoitzara aldatzea						8		**8**
GUZTIRA	**2**	**11**	**17**	**59**	**84**	**85**	**76**	

Ahizpa
Ospitalariak
AITA MENNI

Gesalibar, 15.
20509 ARRASATE - MONDRAGÓN
Tel. +34 943 79 44 11
Fax +34 943 79 61 61
hospital.aitamenni@hospitalarias.es
www.aita-menni.org